

MAHAI PAREKIDEA ETA NEGOZIATZAILEA 22/02/16**MAHAI PAREKIDEA****ADINAGATIKO ORDU MURRIZKETAK**

Adinagatiko ordu murrizketak datorren ikasturtetik aurrera martxan jarriko dira, soilik finkoentzako, sententzia aplikatuz. Hezitzaileon errealitatera egokitzen den murrizketa eskatu dugu LABetik, besteak beste, ordezkoez neurria aplikatzea eta 55 urte betetzen ditugun momentutik lan-zama arintzeko neurriak aplikatzea eskatu dugu. Baina administrazioak irakasleen parametro antzekoetan eta sententziara mugatuz martxan jarriko duela esanez negoziazioa moztu du.

Hau horrela, martxoaren 1ean deialdia argitaratuko dute 2022-2023 ikasturterako adinagatiko ordu murrizketen deialdia eta ebazpenean jakin ahalko dira ze baldintzak bete beharko diren.

GIZARTE ETA FORMAKUNTZA FUNTSA

Otsailaren 25ean argitaratuko dute 2021eko gastuei aurre egiteko ebazpena. Hilabete egongo da eskaerak aurkezteko.

IRALE

Hurrengo ikasturteko eskaintzaren inguruan azalpenak eskatu ditugu, 2008ko akordioan sinatu genituen gure kolektiborako ikastaro berezien inguruan ez duelako administrazioak urratsik eman.

MAHAI NEGOZIATZAILEA**ORDEZKAGUNEA**

Lortu dugu! Hezitzaileontzat ere martxan egongo da ordezkagunea maiatzetik aurrera.

Atzoko bileran akordioaren dokumentuari azken ekarpenak egin genituen eta maiatzean martxan jarriko dutela esan ziguten.

Azken asteetako ordezkapen eza salatu ostean, ordezkagunearekin 2018ko akordioan sinatu bezala ordezkapen guztiak lehen egunetik betetzea bermatu da, egun dugun ordezkoen araudia errespetatuz.

LEP

Administrazioaren aldetik lanpostuen eskaintza zabaltzeko proposamena espero genuen arren, ez zituzten datu zehatzak ekarri.

LABetik argi esan genuen berriro ere, egonkortasuna eta kontsolidazioa bermatzeko gaur egun dauden lanpostu guztiak eskaini behar dituztela.

Gaur egun, guztira **1166 lanpostu daude**, horrela banatuta:

HLE: 1073

Okupazio Terapeutak: 16

Traskribatzaileak: 7

Zeinu Hizkuntzako Interpretak: 23

Gizarte Langileak: 3

Guzti horietatik, 800 lanpostu dira behin-behinean kontratatutako langileek betetzen ditugunak. Behin-behinean kontraturik langileon %69 gara.

Administrazioak 460 lanpostu eskaini ditu dagoeneko eta LABetik beste 340 lanpostu eskaini behar dituztela adierazi dugu.

Sektore publikoa indartu behar dugu! Hezkuntza Publiko komunitarioa IRUTEN jarraitu behar dugu!

Deialdiari begira administrazioak ez zuen proposamen zehatzik ekarri.

Aurten ez dutela lekualdatze- lehiaketarik egingo adierazi zuten. Lan eskaintza prozesuaren bukaeran, langile finkoek leku aldatzeko aukera izango duela adierazi zuten, eskaintzen diren plazen esleipenen hasieran.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko ez dela azterketarik egingo, beraz, hizkuntzen egiaztagiria beste bide batzuetatik lortu beharko dira

Aniztasun funtzionala dutenentzat plazen %7a legez gorde behar da.

Edozein zalantza izanez gero jarri gurekin harremanetan. Animo eta aurrera!